

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Vitoria-Gasteizko Juan Bautista Gamiz kaleko 10. eta 12. zenbakietako higiezin sotoan automobilak aparkatzeko 20 plaza eta motozikletak aparkatzeko 7 plaza lehiaketa bidez besterentzeko espedientea: adjudikatzeko proposamen berriak eta zuzeneko adjudikazio-epea zabaltzea

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 22an egindako ohiko bilkuran.

Vitoria-Gasteizko Juan Bautista Gamiz kaleko 10. eta 12. zenbakietako higiezin sotoan automobilak aparkatzeko 20 plaza eta motozikletak aparkatzeko 7 plaza lehiaketa bidez besterentzeko espedientea: adjudikatzeko proposamen berriak eta zuzeneko adjudikazio-epea zabaltzea.

Udalak jabari osoa zuen Juan Bautista Gámiz kaleko 10. eta 12. higiezin sotoan automobilak aparkatzeko 20 plazaren eta motozikletaren 7 plazaren gainean. ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean alta emanda zeuden plaza horiek, eta 5. jabetza-erregistroan inskribatuta, espedientean dauden informazio-ohar sinpleen bidez egiaztatzen den bezala.

Dagozkion txostenak egin zirelarik, 2024ko azaroaren 22an erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak aipatutako ondasunak besterentzeko lizitazio-prozesua abiaraztea eta baldintza-agiria onestea.

Bestetik, legezko izapide guztiak egin ziren lizitatu eta baldintza-agirian horretarako ezarritako batzordeak balioetsi ondoren proposamen onuragarriena hautatzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko maiatzaren 30ean, ekainaren 13an, ekainaren 27an eta urriaren 24an, esleitu, ukoak onartu eta nahitaezko izapide guztiak egin zituen, espedientean jasota dauden balorazio-batzordearen akten arabera.

2025eko azaroaren 3an bildu zen batzordea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 24an erabakitakoa betetzeko. Bertan, honako hau eskatu zen: "prozedurarekin jarraitzea, ekainaren 6ko zozketan esleipenik lortu ez zuten lizitatzailerei plaza hutsak eskaintzeko, haien eskaintzen arabera eta bertan lortu zuten hurrenkeran". Honako esleipen-proposamen hauek egin ziren:

G**** C****, M**** A**** (1****-F), eskainitako plazaren zenbakia: 14.

Y***** C***, I**** (7*** 7-N), eskainitako plazaren zenbakia: 5.

A**** A****, J**** (7*** 4-T), eskainitako plazaren zenbakia: 16.

A**** B****, A***** (1*** 5-F), eskainitako plazaren zenbakia: 28.

Proposamenei erantzuteko, dokumentazio hau aurkeztu zuten:

G***** C***, M**** A**** (1**** 3-F). Berriazko ukoa 14. plazari, eskubiderik onena duen hurrengo lizitatzaileren alde: S**** G****, A****.

Y**** C****, I**** (7****7-N) 5. zenbakiko plazaren esleipen proposamenaren onespena.

A**** A****, J**** (7****4-T) Berriazko ukoa 16. zenbakiko plazaren esleipenari.

A***** B***, A***** (1*** 5-F) Ez du 28. zenbakiko plazaren esleipenari buruzko ezer adierazi.

Atzera egin duela ulertu da.

Batzordea 2026ko maiatzaren 14an bildu zen. 14. zenbakiko plaza hori hautaketa-postuetan proposatutako lizitatzaila baino beherago zeuden beste lizitzaile batzuek ere eskatu zuten, eta erabaki zen proposatutako esleipendunak uko eginez gero, hurrengo lizitzaileei eskainiko zitzaioala esleipena, hautaketa-ordenaren arabera. Beraz, egoki da M***** A***** C***** andreak A***** andrearen alde egindako proposamena onartzea, eta aipatutako 14. plaza esleitzea proposatzea.

Hutsik geratutako gainerako plazei dagokienez, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko urriaren 24ko batzordean adierazitako helburuarekin bat etorriz, azken zozketa bat egingo da, interesdun berrientzako zuzeneko esleipen-aldia ireki aurretik interesdunik egonez gero (baldintza-agirian aurreikusia dago). Esleipen hori hutsik uzteko erabakia argitaratu ondoren hasiko da.

Lizitzaile hauekin harremanetan jarri gara:

4****1-A T**** N****, J****.

1****9-J M**** G****, A****.

Uko egin diote balizko zozketan parte-hartzeko eskaintzari, eta, beraz, hutsik geratu izanaren behin betiko adierazpena egin behar da, eta plaza horiek zuzenean esleitzeko epea ireki.

4, 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 28 zenbakidunak (automobiletarako).

M1, M2, M3, M6 eta M7(motozikletetarako).

Adierazitako guztia kontuan izanik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 10. eta 11. apartatuetan ezarritakoaren arabera eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Deitutako salerosketa-kontratua esleitzea, eta, ondorioz, 14 zenbakiarekin identifikatutako aparkalekuaren jabari osoa —katastro-erreferentzia: 595807040000010043IS; erregistro-finka: 38303; 5. erregistroa, jabetza-erregistroaren arabera: 12,96 metro karratu) A***** S*** G***** (NAN: 7*** 7-C) andreari eskualdatzea, hamasei mila laurehun eta lau rogei euro eta berrogeita hamar zentimoan (16.480,50 euro), zergak kanpo.

Bigarrena. Deitutako salerosketa-kontratua esleitzea, eta, ondorioz, I****Y**** C**** (NAN: 7****7-N) jaunari eskualdatzea 5 zenbakiarekin identifikatutako aparkaleku-plazaren jabari osoa —katastro-erreferentzia: 595807040000010034HS; erregistro-finka: 38294; 5. erregistroa, jabetza-erregistroaren arabera: 13,01 metro karratu), hamasei mila laurehun eta lau rogei euro eta berrogeita hamar zentimoan (16.480,50 euro), zergak kanpo.

Hirugarrena. 16. eta 28. plazen esleipenari egindako ukoa onartzea, erabaki honen azalpen-zatian jasota dagoen bezala.

Laugarrena. Esleitu gabe uztea plaza hauek, eta zuzenean esleitzeko epea irekitzea:

4, 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 28 zenbakidunak (automobiletarako).

M1, M2, M3, M6 eta M7(motozikletetarako).

Bosgarrena. Esleipendunei gehienez ere 45 egun balioduneko epea ematea, esleipena jakinarazten denetik, prezioa ordaintzeko. Ordaindu ondoren, eskualdatzearen eskritura hogeit egun naturaleko epean sinatu beharko da, gehienez ere, prezioa ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Automobil-plaza baten esleipendun izanez gero, ordainketa- eta eskritura-epaek automobil-plaza horren esleipenean zehaztutakoari egokituko zaizkio.

Seigarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta aurka egiteko eskura dituzten bideak jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 22an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO